


1870eko porrotaren ondorioz Frantziak bere ekialdeko Alsacia eta Lorena lurraldeak galdu zituen, mendekua “behar sakratua” zen, eta “gerra desohorutzen dugu” esatea probokazioa zen.

Hugoren ustetan Frantzia eta Alemaniaren arteko liskarrak bide bakezale eta demokratikoen bidez konpondu behar ziren.

“Aldarrika ditzagun egia absolutuak. Laidozta dezagun gerra. Ez, ez dago odolezko loriarik. Ez, ez da ona eta ez da onuragarria gorpuak sortzea. Ez, ez da posible bizitza heriotzaren morroia izatea. Ez, inguruan zauzkadan ama dohakabeok, ez da posible gerrak, lapur horrek, zuen haurrak eramaten jarraitzea. Ez, ez da posible ama oinazetan erditzea, gizakiak jaiotzea, herriak izerditu eta ereitea, laborariak alorrak landu eta langileak hiriak umotzea, pentsalariak hausnartzea, industriak harrigarritzko gauzak egitea, jeinuak mirariak egitea, giza eragintzak ahaleginak eta sorkuntzak aniztea zeruaren azpian, bataila-zelaia esaten zaion nazioarteko erakusketa deitoragarri honetara iristeko!”
(Hunkidura sakona. Entzule guztiak zutitu eta txalotu egiten dute hizlaria.)

Urrabieta Ortiz y Vierge edo Daniel Vierge (1851-1904) artista espainiarra, mezu orokorra lantzeko anekdota alde batera uzten duen Victor Hugoren ilustratzaile gutxienetarikoa da, sinbolismo primarioan erori gabe. Irudiak “gerra desohoritzen du”.



1878

Ilustrazio: Daniel Vierge. Voltaireren mendeurrena zela eta, Victor Hugo hitzaldia ematen, 1878ko maiatzaren 30ean. MVH © PMVP..

Daniel Vierge. Garaipena, norena?, “Urte ikaragarria”-ren Hugos argitalpenaren ketan grabatua. MVH©PMVP.

“Bere gogoeten harat-honatek arranguratua, buru-makur zegoen. Jaso egin zuen tanpez. Okerren zuzentze argigarri gisako bat sortua zitzaion espirituan. Gertatu ohi da pentsamenduaren zabaltze bat hilobiaren hurbilean; hiltzear egoteak egia ikustea esan nahi du. Menturaz sartzekotan zegoen egin beharreko hura ez zitzaion tamalgarri ageri, baizik zoragarri. Barne-gogoaren ez dakit zer lanaren bidez, karrikako borroka itxuraldatu egin zen bat-batean, bere pentsamenduaren begi aitzinean. Burrustan itzuli zitzaizkion ametsetako galdera zalapartariak, baina ez zuten durduzatu. Ez zuen bakar bat ere utzi erantzunik gabe.

BAKE UNIBERTSALA

“Urrikalgarriak” obraren egilea, 1832ko mugimendu errebolitariari ehundaka orri eskaini zizkiona, zapaltzaileen onerako den gehiegizko bakezaletasunaren tranpan erori zen. Irteera logikorik gabeko kontraesan batean harrapatuta zegoela jakinda, Marius, Cosette-z maitemindutako abokatu gaztea, bere ekintzak probatzera desafiatu zuen. Waterloo-n larriki zauritutako koronel baten seme, Marius pentsaezinaren aurrean aurkitzen da, kaleko borroka, “bidegurutze batean frantsesen arteko gaueko liskarra”. Dena bere baitan nahasten da. Sortutako egoerarekiko gaitzespena sortzen da, gerrarekiko justifikazio moralaren aurrean begi bistakoa balitz bezala, bakezaletasunaren ondorio irrazionala.

Horra, zergatik haserretu behar zuen aitak? Ez ote da ba inoiz matxinada nahitaezko betebeharra izan? Zer ote dauka beheragarri Pontmercy koronelaren semea sartua dagoen borrokak? Ez da ez Montmirail ez Champaubert; bestelako zerbait da. Ez da lurralde sakratu bat, ideia santu bat baino. Aberria kexu da, bego; baina gizateriak txalotu egiten du. Egia ote da, bestalde, aberria kexu dela? Frantzia odoletan da, baina askatasunak irri dagi; eta askatasunaren irriaren aitzinean, Frantziak ahantzi egiten du bere zauria. Eta gero, gauzak goragotik ikusita, zerk aiparaziko digu gerra zibila? Gerra zibila? Zer da hori baina? Ba dea gerra arrotzik? Gizaki arteko gerra oro ez ote da ba haurride arteko gerra? Gerra ez da bere helburuaren arabera kalifikatzen. Ez dago ez gerra arrotzik ez gerra zibilik; zilegi den gerra eta zilegi ez den gerra besterik ez dago. Giza-hitzarmen handia sortzen den eguna arte, gerra, berantetsi egiten den iraganaren aurka lehian datorren etorkizunaren gerra bederenik, beharrezkoa izan liteke.